

Historia

Wikipedia editatzean, batzuetan beldur pixka bat ere izaten dute hasiberriek; bereziki, eskolako lan baterako lehendabiziko aldiz Wikipediara ekarpena egiten ari diren ikasleek. Gida hau Wikipediara historiari buruzko edukiak gehitzeko lana eman zaien ikasleentzat da.

Izan zaitez zehatza

Wikipedia baliabide bat da, milioika pertsonak historiari buruzko informazioa jasotzeko erabiltzen dutena. Wikipedian historiari buruz irakurtzeko arrazoiak historia bezain askotarikoak dira. Pertsona eta gertaera historikoei buruzko eduki zehatz eta objektiboak dokumentatuz eta partekatuz, lagunduko duzu ziurtatzen mundu osoko jendeak giza jakintzaren eremu zabalago bat duela eskura.

Uler itzazu jarraibideak

Har ezazu denbora, hemengo iradokizunak irakurri eta ulertzeko; iradokizun hauek Wikipediara egiten dituzun ekarpenei baliorik handiena emateko bidea emango dizute. Jarraibide hauek betetzen ez dituen zerbait argitaratzen baduzu, hori konpontzeak denbora eta ahalegina eska dezake: edukia hobetzen eman zenezakeen denbora eta ahalegin bat. Jarraibide hauen barruan lan egiten eroso sentitzen ez bazara, esaiozu zure irakasleari ea Wikipediaz kanpoko lanen bat emango dizun.

Jardun ezazu beste editoreekin

Wikipediako esperientziaren parte bat da beste editore batzuen iritziak jaso eta haiei erantzutea. Ez itxaron azken eguneraino ekarpen bat egiteko; bestela, ohar eta iradokizun lagungarriak galduko dituzu. Wikilariak zure lanari buruzko galderei erantzun diezaiekete, edo beharbada galderak egingo dizkizute. Galderarik egiten badizute, erantzun iezaiezu. Esker-

tu iezaiezu emandako laguntza, eta lan egizu haiekin batera, artikulua hobetzeko. Beharbada aldaketak egingo dizkiote zure lanari; edo, jarraibide hauek betetzen ez baditu, artikulutik ezabatuko dute. Horrela gertatzen bada, ez ezazu berriz eduki hori sartu berterik gabe! Galdetu iezaiozu edizioa egin duenari, ea zergatik egin duen, eta ea nola hobetu dezakezun. Eztabaida funtsezko osagaia da Wikipediako prozesuan.

Saihestu ezazu hurbiletik parafraseatzea

Erabil itzazu zeure hitzak. Plagioa egitea, testuak kopiatuz edo hurbiletik parafraseatuz (hau da, hitz gehienak aldatuz, baina testu originalaren egitura eta esanahia mantenduz), arauen kontrakoa da.

Plagioa egitea zure unibertsitateko ohore lege akademikoa urratzea da. Plagioari, Wikipedian, beste wikilari batzuek antzemango diote, edo tresna automatikoei. Hori gertatzen denean, beharbada zure lana ezabatuko dute, eta online erregistratuta geratuko da plagio gertaera bat zure kontuari lotuta. Baliabide eta autore estandarrak ere —hala nola ikasliburuak— egile eskubideen pean daude, eta inoiz ez dira zuzenean kopiatu behar. Plagioari buruzko arauak Wikipediako alde guztietan aplikatzen dira, baita zure proba orriko zirriborro eta oharrei dagokienez ere.

Arazo hori saihesteko modurik onena da ziurtatzea zeure materiala benetan ulertzen duzula, eta horri buruz zeure hitzekin idazten duzula. Hurbiletik parafraseatzea zer den garbi ez badakizu, jar zaitez harremanetan zure unibertsitateko Euskara Zerbitzuarekin.

Jar ezazu zeure aletxo

Har ezazu astia arauak eta jarraibideak ulertzeko. Beharbada beldurgarri samarrak irudituko zaizkizu, baina aurki zure jakintzen eta zentzuaren ekarpena egiten ariko zara, zuk eta milioika lagun gehiagok egunero erabiltzen duzuen baliabide batera.

Artikulu bat aukeratzea

Begiratu ea Wikipedian zer gai falta diren edo garrapen eskasekoak diren. Bilatu zer artikulu dauden alde garrantzitsuren batean osatu gabe. Hona hemen hiru adibide:

- Jeneral baten biografian, gerraren ondoren administratzailetzat egin zuen lana falta izango da, beharbada.
- Senar-emazte bikote batek osatutako talde bati buruzko artikulan, fama gutxi den ezkontideak biek batera gauzatutako lanari egindako ekarpena falta da, beharbada.
- Artikulu batean ikuspegi bakar bat lantzen da; konparazio baterako, gerra kolonial bat, Europako parte-hartzailearen ikuspegitik soilik kontatua.

Artikulu bat sortzea aukeratzen baduzu, gogoan izan ezazu Wikipediak arau zorrotzak dituela sor daitezkeen artikulu motei buruz. Argibide gehiago nahi baduzu, ikus ezazu Wikipedia editatzea eskuliburua, edo bisita ezazu <https://wikiedu.org/editingwikipedia> webgunea.

Iturriak

Historiari buruz idatzi dituzun beste dokumentu batzuetan ez bezala, Wikipediako artikulu batean lehen-tasuna ematen zaie bigarren mailako iturriari, lehen mailako iturrien gainetik. Artikulu batean denbora tarte luzeegia eman baino lehen, garrantzitsua duzu zehaztea ea gaia ondo estalita dagoen bigarren mailako iturri fidagarriekin.

Historialari batek lehen mailako iturri diren dokumentuak aztertzen eta interpretatzen ditu. Historiari buruz idazten ari den wikilari batek, berriz, bigarren mailako iturrietan argitaratu diren interpretazio eta azterketa horien berri ematen du. Horrek mugatu egiten du Wikipedian zer gauzatzaz idatz dezakezun, eta gauza horiei buruz zer modutan idatzi behar duzun.

Erabil itzazu iturri hauek:

- Gaikideek berrikusitako aldizkari artikulua, EBSCOhost eta JSTOR datu baseetan eta antzekoetan bildua.
- Historialariek idatzitako liburuak, aldi bat laburbiltzen eta ebaluatzen dutenak.
- Izen oneko egunkarietako artikulua, gai baten historia laburbiltzen dutenak.

Ez erabili iturri hauek:

- Idazten ari zaren aldiko egunkari artikulua gehienak.
- Zuzenean esku hartu zuten pertsonen egunkariak edo gutunak.
- Artxiboetako erregistroak.
- Lehen mailako beste iturri batzuk.

Zure iturrien egokitasunaz seguru ez bazaude, irakur ezazu iturriari eta aipamenei buruzko Programa eta Ekintzen Arbeleko trebakuntza modulua, edo eskaieziaiozu laguntza irakasleari. Erreferentziak txertatzeari buruzko Wikipediako laguntza eskuragarri dago lasterbide honetan: | lasterbidea [WP:Erref](#)

Zer da lasterbide bat?

[WP:Erref](#) erako testuari, Wikipedian, lasterbidea deritzo. Horrelako lasterbideak teklea ditzakezu Wikipediako bilaketa barran, bestela aurkitzen zailak diren orri espezifikoetara erraz iristeko.

Gutxiegi ordezkaturak dauden ahotsak sartzea

Indigenen ahotsak, baztertutako taldeenak, emakumeenak eta txiroenak, askotan, ez dira ageri Wikipediako artikuluetan. Gaur egungo adituek talde horiei ahotsa eman dietenean, Wikipedia editatzea bide bikaina izan daiteke gutxiegi ordezkaturak dauden haien ikuspegiak gehitzeko. Txerta ezazu informazio hori zure artikuluko ataletan, ikuspegi jakin bati buruzko atal edo artikulu berri bat sortu beharrean.

Historia artikuluek gai sorta zabala barne hartzen dute; diseinuko elementu batzuk berdinak dituzte hainbat artikuluko motak, eta beste batzuk aldatu egiten dira artikuluko mota batetik bestera.

Ikuspegi ezberdinak tratatzea

Historia alorreko artikuluko ongi orekatu bat sortzeko, beharrezkoa da gaiari buruzko ikuspuntu nagusi guztien azalpen orokor bat egitea. Historiak objektibo izatearen itxura izan dezake, baina historialariak maiz ez datoz bat beren artean, eta batzuetan haien metodoek edo ikuspegiak gai historiko bati buruzko narratiba edo interpretazio kontrajarriak ematen dituzte. Gogoan izan ezazu ez zarela besterik gabe gai horri buruz idazten ari; historialariek gaiari buruz zer idatzi duten idazten ari zara.

Egiazta ezazu ikuspuntu horiek aurkezteko eran ondo islatzen duzula adituek ikuspuntu horietako bakoitzari ematen dioten garrantzi erlatiboa. Historialarien gutxiengo batek gai bati buruz dituen interpretazioak ere artikuluan agertu behar dira; baina interpretazio horien alde adituen gutxiengo bat besterik ez dagoela garbi adierazten duen modu batean, betiere. Adituen arteko desadostasunik baldin bada, oro har ideia ona izaten da ideia bakoitzaren ondoan esplizituki haren aldeko adituak aipatzea.

Benetan bazterrekoak diren jarrerak artikulutik kanpo utzi behar dira. Adibidez, Egiptoko piramideei buruzko artikuluko batean, ez dugu sartuko piramide horiek es-tralurtarrek eraiki zituztela dioen teoriarik.

Hainbat ikuspegi ondo deskribatzea da historiari buruz idaztean aurkituko dugun alderdirik zailenetako bat, baina alderdirik garrantzitsuenetakoa ere bada.

Zer da sarrerako atala?

Artikulu bakoitzaren goialdean dago sarrerako atala, eta artikulua edukia laburbiltzen du. Ideia ona izan daiteke sarrerako atala idazteko lana bukaerarako uztea; horrela, artikuluan landu duzuna ondo laburbiltzen duela ziurtatuko duzu. Sarreran, artikuluko ideia garrantzitsuenak guztiak aipatu behar dira, eta ez litzateke aipatu behar artikuluko beste tokiren batean azaltzen ez den informazioirik.

Gertakariei buruz idaztea

Gertakari historikoei buruzko artikuluek lau atal nagusi izan ohi dituzte:

- Sarrerako atala
- Aurrekariak (artikuluko gaia den gertakariaren kausa diren eta gertakariari eragiten dioten gertakariak)
- Gertakaria bera
- Ondorena edo legatua (gertakariaren ondoren zerk iraun duen edo zuen)

Adibide onak dituzu «*Lehen Mundu Gerra*», «*Gernikako bonbardaketa*» eta «*Bosniako gerra*» artikulua.

Entitate politikoei buruz idaztea

Erresuma, nazio edo zibilizazio historikoei buruzko artikuluek atal hauek izan ohi dituzte:

- Sarrerako atala
- Historia
- Gobernua edo Administrazioa
- Ekonomia
- Gizartea edo Kultura
- Ondorena

Biografiak idaztea

Biografiak idazteari buruz gehiago ikasi nahi baduzu, ikus Wikipediako artikulua editatzea: biografiak gida, web orri honetan eskuragarri: <https://wikiedu.org/biographies>

Historia Wikiproiektua

Wikipedian badira historiari buruzko interesa duten hainbat wikilari. Historia Wikiproiektuan, Wikipediak historiari buruz dauzkan edukietarako eskema bat du, hemen eskuragarri: | lasterbidea [WP:Historia](#)

Funtsezko puntuak

Idazten hasten zarenean, gogoan izan itzazu jarraibide hauek:

- Eskolako lan gehienetan ez bezala, Wikipedian ez da onartzen ikerketa originalik. Zure artikuluak iturriek diotena jaso behar du, eta ez zure interpretaziorik edo iritzirik.
- Idatz ezazu irakurle multzo zabal batentzat. Ez pentsatu irakurleek gaiari buruzko jakintzarik dutenik. Saihestu argota, eta labur esplikatu itzazu kontzeptu konplikatuak.
- Laburbildu ezazu iturriek diotena, zeure hitzekin.
- Jarrai iezaiozu gida honetan azaldutako egiturari, baina erabil ezazu zure zentzua ea noiz komeni den atalak bestela izendatzea, konbinatzea, gehitzea edo kentzea.
- Idatz ezazu modu inbertsonalean, datuetan oinarrituta, estilo entziklopedikoarekin. Ez bideratu Wikipediako artikulu bat blog baterako edo saiakera pertsonal baterako ikuspegitik. Ikus ezazu Wikipedia editatzea gida (lotura du zure ikastaroko orrian), tonuaren ezberdintasuna zein den gogoratu nahi baduzu. [Wiki Hezkuntza](#)

Azken gogoetak

- Ez utzi lana azken unerako! Wikipediako artikulu on eta fidagarriak idazteko, denbora behar da. Ez itxaron azken minuturaino. Blokeatuta gelditzen bazara, eska iezaiozu irakasleari epe luzeagoa; hobe duzu hori, Wikipediara jarraibide hauek betetzen ez dituen edukia gehitzea baino.
- Gogoan izan ezazu Wikipediako beste orri bazueta jartzeko estekak ipintzea. Horrela, irakurleek aukera izango dute zuk aipatutako gai



Argitalpen honetan jasotako edukia eta irudiak Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 lizentziaren pean daude erabilgarri, besterik adierazi ez bada.

Wiki Hezkuntzako marka erregistratzekotan dago. Wikipediako logoak eta hitz markak Wikimedia Fundazioaren marka erregistratuak dira. Marka horien erabilera Wikimediaren marka politikaren mende dago, eta horiek erabiltzeko beharbada beharrezkoa izango da baimena (https://wikimediafoundation.org/wiki/Trademark_policy). Wikipediaren markei buruzko galderak egiteko, idatz ezazu trademarks@wikimedia.org helbidera (ingelesez).

Eskerrik asko wikilari hauei: User:Another Believer, User:AustralianRupert, User:Cinderella157, User::Sadads eta User:Wehwalt, gida hau egiteko laguntza baliotsua eman dutelako.

Itzultzailea: Xabier Armendaritz.